**HAURRESKOLAK PARTZUERGOA**

**HEZITZAILE BEHARRAK ESTALTZEKO ORDEZKO HAUTAGAIAK**

**ZERRENDAN IZENA EMATEA ETA BIRBAREMAZIOA**

**APLIKAZIOAREN GIDA**

**APLIKAZIORAKO SARBIDEA**

https://hezigunea.euskadi.eus/eu




***<u>Izen-ematea</u>***

Hezigunean erregistratuta ez bazaude, aurretik izena eman beharko duzu "Izen-ematea" estekan sartuta. (**OHARRA**: denbora behar du)

**Mezu bat jasoko duzu pasahitzarekin zure mugikorrean edo e-mailean.**

***<u>Saioa hasi</u>***

***NAN/AIZ***: Sartu NAN zenbakia letrarekin.

***<u>"Kontuari esleitutako pasahitza"</u>***: Sartu zure pasahitza

Behar bezala identifikatu ondoren, hurrengo pantaila agertuko da, eta **<u>«Eremu pertsonala»</u>** klikatu beharko duzu.




Atal hori zabalduz gero, honako aukera hauek aurkituko dituzu;

"Izapideak langileen sailarekin" klikatu




Hori egitean, eskuinean bi aukera agertuko zaizkizu:

**Administrazio-izapideak**

Haurreskolak - Hautagaiak

Haurreskolak - Zerrenda-irekiera

Lehen aukera dagoeneko ordezkogaien zerrendan dauden hautagaientzat da; bigarrena, hezitzaileen ordezkogaien zerrendan izena eman nahi dutenentzat.

**HAUTAGAIAK**

Aukera horri sakatuta ondorengo pantaila agertuko da:

## 2022-23

### Birmaremazioa 2022-23

- **Deialdia**
- **Izangaiaren fitxa**
- **Baremazio/Birbaremazio Araudia**
- **Aplikazioaren gida**

- **On-line eskabidea**

- **Deialdia** atalean, zerrenda irekiera eta baremazio/birbaremazio deialdiaren dokumentua dago argitaratuta.

- **Izangaiaren fitxa** botoia sakatuta, hautagai bakoitzaren egungo datu pertsonalak, ordezkapen aukerak, titulu eta merituak jasotzen dituen fitxa ikus daiteke.

- **Baremazio/Birbaremazio Araudia** atalean, araudia bera dago eskuragarri.

- **Aplilazioaren gida** irakurtzea gomendatzen da, birbaremazio eskaria on-line era egokian egiteko lagungarri baita.

- **On-line eskabidea** botoia sakatuta birbaremazioa egiteko aplikaziora zuzenean sartuko da. Bertan norbere datu pertsonalak eta ordezkapen aukerak aldatu ahalko ditu hautagaiak, eta meritu bezala kontutan hartzea nahi diren meritu berriak ere bertatik alegatuko dira.

<u>***ADIN TXIKIKOAREN BABESA***:</u>

Sexu gaizkileen erregistro zentralean dauden datuak Hezkuntza Sailak datuak kontsultatu ahal izateko baimena bete ez duten ordezkogaien kasuan -<u>birbarematze-prozesu honetan fitxa ikustera sartzen direnean edo haien aukerak on-line aldatzen dituztenean</u>-, dagokion atala erakutsiko zaie, aipatutako baimena ematen duten edo ez adierazteko.




## <u>1.- AUKERAK ALDATZEA</u>

“Identifikazio datuak”: Lehen erlaitz honetan, osatu eremuak zure datuekin eta sakatu “Gorde”.

**Berria:** Hezkuntza Sailean lan egindako epeak alegatu nahi izanez gero, Haurreskolak Partzuergoari lan esperientzia horren kontsula egiteko baimena emateko aukera dago. Baimena emanez gero **ez da zerbitzu orria aurkeztu beharko eta haur hezkuntzan irakasle edo hezitzaile lanetan aritutako denbora ofizioz kontatuko da.** Horretarako “baimena ematen dut” atalean sakatu beharko da.

Bai aldaketa eta baita baimena erregistratzeko ere “Gorde” sakatu beharra dago, bestela eskaria ez da erregistratuta geratuko.




Bigarren erlaitzean zure ordezkapen aukerak alda ditzakezu, zonaldea eta lanaldia. “Gorde” botoia sakatzea beharrezkoa da aldaketak erregistratuta gera daitezen.

Berria: **Alegatu nahi diren meritu berriak bertatik entregatu beharko dira.** Horretarako **<u>“dokumentazioa entregatzea”</u>** botoia sakatu.



Bertan azaltzen diren jarraibideak irakurtzea beharrezkoa da aurrera jarraitu ahal izateko. Behin irakurri direla ziurtatu ondoren "merezimenduak entregatzea" sakatu behar da.




Atal honetan alegatu nahi diren meritu berri guztien dokumentuak atxikitu beharko dira. Horretarako **"berria"** sakatu, eskatutako datuak bete, dokumentua atxikitu eta **"Gorde".** Alegatu nahi den meritu bakoitzeko egin beharko da.



Behin dokumentazioa sartuta merezimenduaren egoera, Haurreskolak Partzuergoak dokumentua onartu edo baztertu arte “Balidatu gabe” geratuko da. Dokumentu guztiak atxikitu ondoren **“aurrekoa”** batoia sakatu behar da, erregistroari amaiera eman ahal izateko.




Bertan **“dokumentazioa entregatzen amaitzea eta erregistratzea”** botoiari sakatu beharko zaio merituen alegazioaren prozesuari amaiera emateko.




Birbaremazio prozesuan parte hartzeko epea zabalik dagoen bitartean nahi adina aldiz sartu ahalko da aurkeztutako dokumentazioa aldatu, kendu edo gehitzera.

Zerrendan baja eman nahi izanez gero, beheko partean dagoen “Zerrendatik baja eman” botoia sakatu. Ongi ziurtatzeko, aplikazioak mezu bat erakutsiko dizu Haurreskolak Partzuergora idatzia bidaltzeko eskatuz.




## GARRANTZITSUA:

- **Epea zabalik dagoen bitartean nahi beste aldateka egin ahalko dituzu. Epea amaitutakoan azkena gordetako informazioa izango da kontuan.**

**ZERRENDA IREKIERA**

## Hautagaien sarrera berria

- ## Deialdia
- ## Baremazio/Birbaremazio Araudia
- ## Aplikazioaren gida

- ## On-line eskabidea

- **Deialdia** atalean, zerrenda irekiera eta baremazio/birbaremazio deialdiaren dokumentua dago argitaratuta.

- **Baremazio/Birbaremazio Araudia** atalean, araudia bera dago eskuragarri.

- **Aplilazioaren gida** irakurtzea gomendatzen da, birbaremazio eskaria on-line era egokian egiteko lagungarri baita.

- **On-line eskabidea** botoia sakatuta birbaremazioa egiteko aplikaziora zuzenean sartuko da. Bertan norbere datu pertsonalak eta ordezkapen aukerak aldatu ahalko ditu hautagaiak, eta meritu bezala kontutan hartzea nahi diren meritu berriak ere bertatik alegatuko dira.

**ON-LINE ESKABIDEAK**

***1.- Pausua "Identifikazio datuak"***

Erlaitz honetan osatu eremuak zure datuekin.

Bertan ondorengo ziurtatze eta baimenak eman ahalko dira:

- Zinpeko aitorpena
- Pribatutasuna
- Adingabearen babesa dela eta kontsulta egin ahal izateko baieman ematea
- **Berria:** Hezkuntza Sailean lan egindako epeak alegatu nahi izanez gero, Haurreskolak Partzuergoari lan esperientzia horren kontsula egiteko baimena emateko aukera dago. Baimena emanez gero **ez da zerbitzu orria aurkeztu beharko eta haur hezkuntzan irakasle edo hezitzaile lanetan aritutako denbora ofizioz kontatuko da.** Horretarako "baimena ematen dut" atalean sakatu beharko da.



HAURRESKOLAK Hezkuntzaren Ataria

Identifikazio-zenbakia: Izena:

Pausua 1 Identifikazio-datuak » Pausua 2 Zerrendak » Pausua 3 Prestakuntza akademikoa

Aldez aurretik, markatu onespen eta zinpeko deklarazioen laukiak

Helbidea: kalea
(*)Herrialdea: España
(*)Lurralde Historikoa: Araba/Álava
(*)Udalerria: Alegría-Dulantzi
(*)Posta Kodea: 01193
1. telefonoa: 666666666
2. telefonoa:
3. telefonoa:
4. telefonoa:
Helbide elektronikoa: ar@gmail.com
(*)Sexua: EMAKUMEZKOA GIZONEZKOA
(*)Jaiotze-data: 1996/01/09
(*)Nazionalitatea: España

ZINPEKO AITORPENA

Ondoko zinpeko aitorpena EGITEN DUT: Inongo administrazio publikotik ez nautela zigor-espediente baten ondorioz egotzi eta ez nagoela herri-jarduerarako ezgaituta.

PRIBATUTASUNA

Eskatzaileak berariaz baimena ematen du bere datu pertsonalak lantzeko, deialdian eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan aurreikusitako moduan.

ADINGABEAREN BABESA

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan ezarritakoari dagokionez, pasarte hau ulertzen eta onartzen dut. Adierazten dut ez nautela kondenatu epai irmo baten bidez espetxe-zigorrarekin Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea hein batean aldatzen dituenak 13.5 artikuluan aipatzen dituen sexu-askatasun eta ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

Baimena ematen diot Haurreskolak Partzuegoari nire izenean 1/1996 Lege Organikoak 13.5 artikuluan aipatzen duen ziurtagiria eskatzeko, adingabeekiko ohiko harremanak izatea eskatzen duten zerbitzuak ematen ari naizen bitartean edo jarduera hori hasten dudanean. Halaber, nire datu pertsonalak Nortasun Datuen Egiaztatze Sistemaren bitartez kontsulta egiteko baimena ematen dut. (522/2006 ED)

Ez diot baimena ematen

Baimena ematen ez baduzu, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko duzu kontratazioaren unean.

BAIMENA EMATEA HAURRESKOLAK PARTZUERGOARI

Honako informazioa Hezkuntza Sailean kontsultatzeko:

Haur Hezkuntzako irakasle gisa egindako zerbitzuak

Baimena ematen dut

Ez dut baimenik ematen ( Kasu horretan, Hezkuntza Sailak sinatu eta zigilatutako zerbitzu-orria aurkeztu behar da)

Hurrengoa

Erabiltzailearen Laguntza Zentroa (CAU) telefonoak 945 20 72 56

Aldaketak egin ondoren sakatu barrenean ageri den "Hurrengoa” botoia.

## ***2.-Pausua: “Zerrendak”***

Atal honetan ordezkapenak zein zonaldetan eta zonalde bakoitzean zein lanalditan egin nahi dituzun aukera dezakezu.




Aldaketak egin ondoren sakatu “Hurrengoa” botoia.

## ***3. Pausua-“Prestakuntza akademikoa”***

Bertan zerrendan sartzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla ziurtatu ahal izateko beharrezkoak diren dokumentuak alegatu eta atxikitu beharko dira.

**BERRIA :** Alegatu nahi diren **merezimenduak** momentu honetan aurkeztu beharko dira.

Aportatu nahi den dokumentazio guztia banan bana adierazi eta igo beharko da. Horretarako, “berria” botoiari sakatu, datuak bete, eta “gorde” botoiari sakatu.

**EZ SAKATU “ESKABIDEA AMAITU ETA AGIRIA SORTU” PROZESU GUZTIA AMAITU ARTE**


Hemen zaude: Hasiera » Irekitze berrietarako sarbidea » Aukerak/espezialitateak aldatzea
Identifikazio-zenbakia: 12345678Z
Izena: PRUEBA PRUEBA, PRUEBA
Pausua 1
Identifikazio-datuak »
Pausua 2
Zerrendak »
Pausua 3
Prestakuntza akademikoa
Jarraibideak irakurtzea gomendatzen da
Emaitzak
Xehetasuna
Elementu barik
0-tik
Agiri mota
Fitxategi
Egoera
Erregistro egu
Berria
Editatu | Ezabatu
Aurrekoa
Eskabidea amaitu eta agiria sortu
Erabiltzailearen Laguntza Zentroa (CAU) telefonoak 945 20 72 56


Hemen zaude: Hasiera » Irekitze berrietarako sarbidea » Aukerak/espezialitateak aldatzea
Identifikazio-zenbakia: 12345678Z
Izena: PRUEBA PRUEBA, PRUEBA
Pausua 1
Identifikazio-datuak »
Pausua 2
Zerrendak »
Pausua 3
Prestakuntza akademikoa
Jarraibideak irakurtzea gomendatzen da
Emaitzak
Xehetasuna
(*)Dokumentazio mota:
Irakaskuntza esperientzia
(*)Merezimendu mota:
a). Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan
(*)Noiztik - (*)Noiz arte
(*)Ikastetxea:
(*)Artxiboa:
Examinar...
Egoera:
Baliozkotu gabe
Gorde
Aurrekoa
Eskabidea amaitu eta agiria sortu

Behin dokumentazioa sartuta, hauen egoera, Haurreskolak Partzuergoak dokumentua onartu edo baztertu arte “Balidatu gabe” geratuko da. Dokumentu guztiak atxikitu ondoren eta prozesua amaitu nahi duzuenean **“Eskabidea amaitu eta agiria sortu”** batoia sakatu behar da.

Azken pausu honekin izenematea eta baremazioa amaitutzat emango da.




## GARRANTZITSUA:

- **“Eskabidea amaitu eta agiria sortu” botoia sakatu ondoren, ezin izango da berriz ere norberaren eskarian sartu. Beraz, ezin izango da inolako aldaketarin egin (datu pertsonal zein zerrenden aukeraketan) ezta beste dokumentu berririk atxikitu ere.**